

balke

2002ko ABUZTUA,
102. ALEA, DOHAINIK

Arrauna eskuan ibili munduan

Gure arraunlariekin Ondarruan



Ander
Hormazuri
“Artea gauza serioa da”



Abuztuko zenbakiari atia irekitzeko, zuei, irakurle-ei egindako eskaera pres-tatu dizuegu, tartean meterioturen bat ere badelarik.

Ze berri atalean zaha-rrak berri esan behar oraingoan: musika hamabostal-dia, pintura leihaketa, etab.

Abuztuan jai ugari izaten da, eta egun aproposak izaten dira jardun-ian aritzeko, patxada ederrarekin. Ander Hormazurirekin izandako elkarriketa interesgarria irakurtze-ko aukera izango dugu.



Gero, ur haunditan murgilduko gara, oraingoan dauden handiene-



tan, gainera, itsaso zabalean. Estro-pada egun bateko giroarekin goza-tu ahal izango dugu.

Uretatik atera ondoren, txarra ez olarru-zopa, barruak berotze aldera.

Janda bakarrik ezin bizi, ordea, eta noizean behin izerdi patzetan egotea ere ez da kaltegarria. Oier Aizpuruak ederki daki hori. Azke-nengo txapelketetan gertatutakoa kontatuko digu.

Kirola egin ondoren atsedean har-tzea komenigarria izaten da, eta horretarako Hotel Amaia egokia izango zenez, zarrak berri atalean hotel horretako kontuak izango

ditugu. Eta indarrak hartu ondo-ren, tiantuan egon behar agendan zer dagoen jakiteko.



HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

faxa: 943 86 17 42

email:

baleike@topagunea.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

Administrazio batzordea

Esther Etxeberria

Xabier Azkue

Erredakzioa batzordea

Ibon Manterola

Eneko Dorronsoro

Itxaso Ibarra

Aitor Manterola

Koordinatzailea

Aitor Manterola

Kazetariak

Eneko Dorronsoro

Ibon Manterola

Itxaso Ibarra

Aitor Manterola

Oikialdean orriaren

arduraduna

Xabier Aizpuru

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Xabier

Aranguren, Jon Maia,

Jon Sudupe, Esti Esteibar,

Dani Carballo, Inaxio Tolosa,

Inaxio Manterola, Belen

Golmaio, Izaga Garzia,

Koldo Landaluze, Beñat

Fernandez de Arroyabe,

Ihantz Linazisoro, Egoitz

Lizaso, Garikoitz Telleria,

Natur Taldea

Argazkiak

Baleike.

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Baleike

Publizitatea

943 86 15 45 tel. (Esther)

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

3.500 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Azalaren

argazkia

Eva Franco

Baleikek ez du bere gain har-tzen aldizkarian adierazitako esa-nen eta iritzien erantzukizunik.

Argitalpen honen edizioiko



Zumaia Udalak



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



*gizarte-ekintza
obra social*



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

Parte hartu eta idatzi!!

ORRIALDE HAU zuentzako gordeko dugu iraileko zenbakitik hasita. Herrian gertatutako edozer gauzari buruz zuen iritzia azaldu nahi baduzue, edo beste edozein kontu esateko gogoia duzuela, aprobetxatu BALEIKEk ematen dizuen aukera hau. Atal honen izena ATIA IREKITA da, eta ez dauka azalpen beharrik. BALEIKE denona da, eta alde horretatik denok duzue bertan lagundu eta parte hartzeko eskubidea. Gainera, horrek gure helburu garrantzitsuenetako bat lortzen lagunduko liguke: aldizkaria denon artean egitea, zuena sentiaraztea, denona.

Horretaz aparte, zuek azaldutako gairen baten inguruan herrian bertan eztabaida antzeko bat ere sortu daiteke. Batek zerbait idatzi, beste batek erantzun, etab...


Beste helburu txiki bat ere bete nahi dugu aukera hau zuei emanda: idazmena lantzea. Badakigu jende askok izaten duela idazteko gogoia. Baina bata dela edo bestea dela, gogo hori ezkutuan gelditzen da. Aprobetxatu aukera hau, eta lasai asko idatzi.

Beraz, badakizue, lotsak alde batera laga, eta zerbait kontatu nahi duzuela, edo kexaren bat daukazuela, idatzi lasai. Behin idatzita, guri bidaltzeko bi bide izango dituzue:

- Idatzitako hori BALEIKEk Juan Belmonte kalean duen egoitzara eramatea.
- Idatzitakoa posta elektronikoaren bidez bidaltzea. Hauxe da gure helbidea: baleike@topagunea.com

Ahaztu baino lehen, ohar txiki pare bat:

- Idazten duzuenok izena eta abizena ipini, eta talderen baten idatzitakoa bada, talde horren izenean izenpetu.
- Idatzitakoak gutxi gorabehera, orrialde erdi bat edo orrialde bateko tamaina edo luzera izan beharko du.



Baleiken zure iritzia ezinbeztekoa da.

Zuen erantzunaren zain egotea besterik ez zaigu geratzen. Eta badakizue, ANIMATU!! BALEIKE DENON ARTEAN EGIN BEHAR DUGU ETA!!

BALEIKE aldizkariko lantaldea

BAZKIDEA IZAN NAHI DUT

Izena:.....
 Abizenak:.....
 Helbidea:.....
 Telefonoa:.....
 Kontu korrentea (hogeigutakoak):.....

Harpidetza orria:
 Harpidedun zein bazkide izateko, bidali orri hau, beteta, toki hauetako batera:

- Baleikeko lokala (Juan Belmonte 29)
- Foronda kultur etxea
- Erribera Kaleko Errota
- Aizpurua liburu-denda
- E-maila: baleike@topagunea.com

HARPIDEDUNA IZAN NAHI DUT

Izena:.....
 Abizenak:.....
 Helbidea:.....
 Telefonoa:.....

Etxera bueltan

EZ DA LEHEN ALDIA gertatzen zaiguna eta martxa honetan ezta azkena izango.

Aurreko larunbatean (uztailak 27) familiaren etxera joan ginen Getariara. Eguna igarota, arratsaldean, Zumaira bueltatzea erabaki

genuen. Nekatuta bageunden ere iritsi aurretik maratoi bat genuen zain: izugarrizko auto hilara Narrondo parean. Ez dago esan beharrik zein desatsegina den egoera hau batez ere

Zumaira iristean --ordu bete beranduago noski-- udaltzainak ikusten badituzu isunak jartzen inolako trabarik egiten ez zuten autoei.

Ez dut nere haserrea hemen hustu nahi. Soilik konponbide bat eskatzen diot dagokionari (agian niri dagokit: familia bisitatzera joango ez banintz edo Meaga auzotik joanez gero), ikusirik beste lekuetan herri barruko zirkulazioa arintzeko ahaleginak egiten direla.

Iñigo Azkue

DANI



—IMAJINAU METEOPITUA ITZURUNEA
EROTITZEN DALA, ENPADRONAU
IN BARRIO GENU, EZ?



— HOP! PEREJILLAKIN ITENEN DEN,
NESKA ... STATUS QUO, EMATEN
ZIONAN TA.

AMETZA
taberna

Santiago auzoa, 4
tel: 943 143370



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19 Tel: 943 861433
Faxa: 943 861067

Antonio Etxabe



*Gizonezkoen
erropak*

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157



Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861589



Itzurun, 1 Tel. 943 143224

Nazioarteko Musikaldia

AURTEN ERE ospatu da Nazioarteko Musika Jaialdia, abuztuaren 1etik 12ra. Egun hauetan hainbat kontzerturekin gozatzeko aukera izan dugu, eta ikasleek ere ikastaroak izan dituzte, urtero bezala. Laurogei ikasle etorri dira, Euskal Herrikoak gehienak, baina baita Espainakoak eta Italiakoak ere. Zortzi bat irakaslek eman dizkiete ikastaroak.

Antolatzaileak gustura gelditu dira, nahiz eta, eguraldiagatik, paolean antolatutako kontzertua bertan bera utzi behar izan.

Bestelakoan, herriko musika bandak eta abesbatzak emandako kontzertua, eta Joxe Mari Kortaren omenez egin zena arrakastatsuenak izan direla esan digute antolatzaileek.



Jendeak gozatu ederra hartu zuen Luur Metal boskotearekin.



Joxe Mari Kortaren oroimenezko kontzertua eskaini zuten musikaldiko irakasleek.

Arkupe



*Okindegia
eta gosariak*

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

ad

**AUTOS
ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85



OPARIAK ETA DEKORAZIOA

Erribera kalea, 6
Telefono: 943 86 53 87
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GIZA-GAZTELUAK

IKUSKIZUN ZORAGARRIA eskaini ziguten Kataluniako Vilanova i la Geltru herriko FALCONS CASTELLET taldeko kideek. Zoragarria eta arriskutsua, era berean, argazkietan ikusgai dituzuen dorreak edo gazteluak egiteak arrisku handiak hartzea eskatzen duelako. Hauek izan ziren egindako dorreak edo gazteluak: pira-9, tripira, capdil, ventalls, vanos, cristos, folking eta 3-obert .

Talde honetako kide batek esan zigunez, hogeita hamar urte daramatzate lanean. Egiten dituzten dorreek edo gazteluek esanahi berezirik ez dutela ere aipatu zigun. Ikuskizun hau XIX. mendean eraman zuten Katalunia aldera Europako ekialdeko herrialdeetatik joandako artistek . Artista talde horiek Katalunian bertan gelditu ziren, kataluniarrek haiengandik ikasi, eta orain herriz herri erakusten ari dira aspaldi ikasitako ohitura hau.



Angeles Sorazu, 2
Tel. 943 143089



TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694

EGUZKI
PUB
Koktel bereziak
Basadi Auzategia, 9-A 2-B



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

AITA MARI
kafetegia

Julio Beobide, 15 Tel. 943 861395 Zumaiá



ALBAITARITZA
KLINIKA

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
INAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

astegunak: 8:30 - 10

Basadi, 7 behea
Tel. 943143310
Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Karmengo Ama, 14
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIÁ 943 862543

San Bartolomeak 2002. Oikia

Besteen elkarrizketak entzutea ez omen da edukazio onekoa baina.... beno, lehengo batean elkarrizketa interesgarri hau entzuteko aukera eduki genuen, eta denok jakin beharrekoa zela iruditu zitzaigun, beraz hara hor elkarrizketa berriya paperian jarriya.

XANTI ta PATXI

X: Hi Patxi, San Bartolomeak urrian dikiyau.

P: Bai, battuk majiñat urte azaldu enaukela, len añako zoze ite al diye oaingo gaztiak.

X: Bai motel. Ostiralian hasikoittuk oilasko biltziakin da arratsaldian lepua mozte diyeneako sagardo, talo ta abarre izangoiu egarrik pasa eztezaun.

P: Koño, Koño ta bertsolairik azalduko al dek? Ta pelotayak?

X: Bai motel, bertsolayak danentzat moukuak, zaharrak ta gaztiak ta pelotayake onak ta hobiak.

P: Kurioxo orduan. Proaik eztek pa faltako?

X: Ez motel. Bai asto ta bai idi, ta bes-teik eztolako. Herri Kirolak beste jaialdi ikusgarriya, aizkoan da, trontzan, txingetan... Gorritire han izangoek animala danak atzetik dittula.

P: Erromei kontuan nola ibiltzezeate?

X: Bueno, jeneralian onak ekartzeixkiye, betiko erromeya montatzeuen tal-

diak, trikitylayak, baña aurtent jarri ziguek xelegekeya. Txori txikiya o nola esateye... "PAJARITO" diskuak jartzen ostialian.

P: Diskuak?

X: Bai motel, grabautako musika, baña danetik jartzeik e! Ikiarizko martxa jarriko omen dik

P: Eztek egiya?

X: Bai hala esateye, sekulako festaik onena izango omendek, neska launtzekore puntta punttakua, gure garaitan bezela

P: Bueno Xanti, ia aurtenguan andria engañau ta azaltzen gattuken.

X: Bai, bai eorrek galdukoek bestela.

P: Bai ondo segi.

X: Bai, ayo, San Bartolomeiak arte.

Oihana ta Unai



GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneke menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

Ohizko tratamenduez gain:

- Laser bidezko depilazioa
- Mikropigmentazioa
- Tatuajeak

CORO PRIETO
Esteticista

Bonifazio Etxegarai plaza z/g Tel. 943 861322

IV.Kale Pintura lehiaketa



Parte hartzaileetako bat Zumaiko moilan denbora gehien daraman ontzia margotzen.

ABUZTUAREN 15a jai eguna izan bazen ere, batzuei lan egitea tokatu zitzairen. Kale-pintura leihaketakoko parte hartzaileak herriko kaleetan zehar aritu ziren euren koadroak margotzen. Guztira hogeita hamabost izan ziren, kopuru polita. Azkenean batek irabazi behar, eta hori Imanol Kerejeta azkoitiarra izan

zen. Lehenengo zumaiarraren saria, berriz, Juan Luis Blancorentzat izan zen.

Bestalde, lehiaketarako egindako lanekin erakusketa prestatu dute Alondeian edo Oxforden, abuztuaren 23tik irailaren 8ra. Zumaiko txokoak koadroetan ikusteko aukera paregabea, beraz.



Tel. 943 860000

ERROTA
OPIL-OKINDEGIA

EGOKI



Erloju eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

Galdona



burdindegia

Mendara marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxa. 943 861330

GANBARA



Taberna

juan belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57



Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



PEUGEOT

ANDER HORMAZURI

“Ez gaituzte serio hartzen,
baina guretzat...”

arteak gauza serioa da!”

*Artearen munduan
buru-belarri
murgilduta bizi da
Ander Hormazuri.
Bere betiko
jarduna une batez
utzi eta gurekin
jardutera
gonbidatu
dugu.*

A londegian (Oxforden) harra-
patu dugu egunotan ikusgai
dagoen erakusketa presta-
tzen. Oso lanpetuta ibili
arren, tartetxo bat egin digu,
eta hamaika konturi buruz hitz egin
dugu: arteari buruz, erakusketaren gai-
nean...

Noiztik datorkizu pintatzeko zaleta-
suna?

Instituto garaian hasi nintzen margo-
tzen, matematikako klaseetan eta.
Garai horretan margotu besterik ez
nuen egiten, jolas bezala hartzen nuen.
Gero pixkana-pixkanaka sartzen joan
nintzen, eta eskolak utzi eta hor hasi
nintzen, margotzen eta grabatuak egi-
ten. Konturatu gabe barruan sartu nin-

tzen; hasieran hobbie bat zen, baina
gero konturatu nintzen desberdina zela
marraztea eta arte munduan murgil-
tzea. Orduan sartu nintzen gehiago arte
munduan, grabatuen bitartez eta...

Arteko ikasketarik egin al duzu?

Beno, Debako eskolan ikasi nuen gra-
batuak egiten. Gero, Aiako eskolan
zeramika, eskultura... landu genituen,
eta han grabatu-tailerra sortu genuen.
Hemezortzi urterekin sartu eta zazpi
urte pasa nituen han. Gauza horietaz
zekitenek erakusten ziguten, orain Arte
Ederretako maisu direnek. Benetako
eskola izan zen.

Zuretzat zer da, lana edo hobbie-a?

Gaur egun bizimodua horren ingu-
ruan egiten dut, obren bitartez, pintura
klaseak ematen, baita liburu-etako eta
CD Rom-etako marrazkiak egiten ere.
Lan oso desberdinak dira, baina denak
erlazionatuta daude.

Baina denak, behintzat, gustukoak...

Beno, lan denak lanak izaten dira.
Adibidez, erakusketarena oso pertsona-
la izaten da, barruko pozik gehiena
ematen duena, nahiz eta bere istorioak
izan. Beste asko enkarguak dira,
marrazkiak egiteko enkarguak, eta ba-
tzuekin gozatu egiten duzu, baina
beste batzuekin presaka ibili behar izat-
en da. Klaseak ematea ere gustatzen
zait, ez dut sufritzen, eta oso gustura
nago...matematikak ematea baino
dibertigarriagoa da.

Horrela begiratuta hobbie-a ematen
du, baina lana ere bada, eta lan guztie-





tan bezala egun onak eta txarrak izaten dira.

Bizimodua ateratzeko adina ematen al du?

Badago honetatik bizi den jendea, baina oso gutxi. Euskal Herrian behintzat, norbere obren kontura bizi direnak oso gutxi dira, normalean hirurogei urte bete arte ez dira lasai bizitzen.

Jende gaztea berriz, oso oso gutxi dago norbere obren bitartez bizimodua aurrera ateratzen duena. Obren estiloak ere eragina izaten du. Paisaiak egiten dituztenek saltzeko asmoa izaten dute, etxeetan errazago sartzen direlako, baina hortik kanpo dauden lanak, gazteenak gehienbat, ez dira saltzen. Aberastu denik ez dut inor ezagutzen, bizi den artean, behintzat.

Urtean zenbat erakusketa egiten dituzu?

Garaia arabea izaten da hori; aurren, adibidez, hau bigarrena dut, baina

lehengo urtean ez nuen batere egin. Ez dut markatuta izaten urtean zenbat erakusketa egin.

Zumaiatik kanpo ere egiten dituzu erakusketak, ezta?

Bai, sortzen baldin bada egiten da. Azkenaldian ez naiz saiatu ere egin, lehenago eskatzera joaten ginen, baina azken bi urteetan ez...

erakusketaren bat sortzen

bada ondo, eta bestela, lasai. Nahiago dut lasai hartu.

Zer egiten duzu, lan bat bukatu eta erakusketaren bat bilatu? Edo erakusketa bat sortzen zaizunean lanean hasi?

Gaur egun oso zaila da erakusketarako aretoak lortzea, bakoitzak bere bezeroak izaten dituelako. Eskaera bat egiten da, eta onartzen badizute harako lana egiten da. Guk horrela egiten

“Euskal Herrian behintzat, norbere obren kontura bizi direnak oso gutxi dira”

“Inspiraziorik ez du esistitzen, ez dago inspiraziorik.”

dugu, baina beste batzuek lana eginda izaten dute. Nik nonbait erakusketaren badut, harako lan berria egiten dut, aretoaren arabera beti ere; batzutean koadroak dira, bestetan instalazioak. Espazio bat hartu, areto bat adibidez, eta hori betetzeari deitzen zaio instalazioa. Aretoak bakarrik izaten al du eragina? Edo erakusketa kostaldean edo barrukaldean izateak ere eragina izaten du?

Nik horri ez diot begiratzen, nire obran ez dudalako hori adierazten. Paisaiak egiten dituztenek begiratu diote horri, baina nik ez. Espazioaren arabera egiten dut nik. Adibidez, Eibarko Portalean badut erakusketa, areto handi bat denez, han ez dut koadrorik sartzen; areto txikia bada, koadro txikiak egin behar.

Erakundeek laguntzen al dizute?

Bai, baina laguntzak oso eskasak izaten dira. Nik uste dut kontzeptu okerra dutela, hau ez delako ulertzen ekintza bat bezala. Erakusketak ez dira ekintza kultural bezala ikusten; badirudi artistak fabore bat eskatzen duela, eta ez luke horrela izan behar, azkenean herri baten parte garelako. Kontzertu bat edo antzerki obra bat antolatzen dutenean, horiek ekintza kultural bezala hartzen dituzte, baina artea ez. Obrak, gero,

saldu egiten ditugula aurpegiatzen digute, baina hori ez da egia.

Kultura munduan faborea eskatzen ari zareneko ustea nahiko zabalduta dago...

Bai, halaxe da. Nire ustez, inizatiba erakundeek hartu beharko lukete, eta aretoak zaindu eta txukundu.

Edozein proiektutan izugarrizko dirutza gastatzen dute, baina horrelakotan ez. Ez gaituzte serio hartzen, baina guretzat gauza serioa da. Pinturaz gain, eskulturak ere egiten al dituzu?



Eskultura bezala ez, baina bai instalazio gisa. Adibidez, areto bat hartu eta gela bat balitz bezala prestatu (ordenadorea, mahaia, sofa, koadroa...) Baita hormetako itzalak marraztu ere. Baina ez eskultura bezala.

Zerk inspiratzen zaitu?

Inspiraziorik ez du esistitzen, ez dago inspiraziorik. Egiten ari naizen neurrian sortzen zaizkit istorioak. Denboraren poderioz gauzak ikusten joaten garenez, obra bat ez da norbanakoarena, beti dago kanpoko eraginen bat. Inguruan jasotzen dudana islatzen saiatzen naiz. Jardunean sortzen dira gauzak, ez bapatean.

Zumaian ba al dago artea lantzeko girorik?

Bai, jende asko dabil artearen inguruan, baina inor ez da hortik bizi. Badaude paisaiak lantzen dituztenak; guk tailer bat eduki dugu lauren artean, eta hor ibiltzen gara.

Hortik aparte badira

beste batzuk: Mantxi,

Jon Ander...

Zumaian ez

gara ohar-

tzen, baina

nadago hala-

ko giro bat.

Kanpora joa-

ten garenean

harritu egiten

dira Zumaian

*"Harritzen
nauena
gustatzen zait,
besterik ez."*

dagoen mugimenduarekin. Herri txikia izateko artearen inguruan pertsona asko gabiltzala esaten digute. Baina herrian bertan ez gaituzte baloratzen. Hau egiaztatzeko Zumaia web orrira jo besterik ez dago; Zumaian bi artista daudela jartzen du bertan, eta hori ez da egia. Badirudi paisaia lantzen dutenak bakarrik direla artistak, eta hori ez da horrela. Badira beste pertsona batzuk, Keixeta eta Arantxa, adibidez, lan asko egiten dutenak, baina horiek ez dira inoiz agertzen.

Arte-talderik ba al dago Zumaian?

Egon da, eta hamairu urtez egin dituzte bere istorioak, eta ondo funtzionatu

izan du, uda partean gauzak

antolatzen eta ideiak ematen.

Orain krisi txiki bat

pasatzen ari da, hamairu

urte asko direlako, eta

berrikuntza batzuk

behar dituelako. Baina

ez da desagertuko.

Zuretzat zer da artea?

Horrek niretzako ez dauka

esplikaziorik. Ezin dut esaldi

batekin erantzun; definizioa ematea

kritikoentzat edo idazleentzat lagako

nuke. Guk plastikoki definitzen dugu,

hitzeekin jolastea ez zaigu ondo ematen.

Artista baten aurrean al gaude?

Artista hitza ez zait batere gustatzen,

oso hitz markatua delako. Askok muga-

tzen zaitu. Adibidez, liburu bat idazten

duenari idazle esaten zaio, eta horretan

gelditzen da. Nik arteaz gain beste

gauza batzuk ere egiten ditut.

Abstraktuak, errealismoa, surrealismoa... beste -ismoren bat?

Hori kritikoentzako galdera da. Nik ez dakit nire obra non kokatu, batzuentzat abstraktua izango da, besteentzat figuratiboa edo espresionista. Gure lana gauzei forma ematea da; beste batzuk arduratuko dira gure lana kokatzeaz.

Orduan, koadro bat egiten duzunean ez dakizu zein mugimenduren barruan dagoen...

Ez, ez, eta gainera ez zait gustatzen. Zerbait egiterakoan ez naiz mugatzen, ez dut pentsatzen "honek honen barruan egon behar du". Eta besteek ere horrela egiten dute. Gero kritikoei kokatuko dute guk egindako lana. Zure obrak zer adierazi nahi du?

Obraren arabera eta garaiaren arabera aldatu egiten da.

Eta oraingo erakusketak?

Hori ikusleak esan behar du, baina nire ustez eguneroko bizitzan izaten ditugun egoeren irudikapena da.

Pertsonak ere erabili dituzu...

Normalean ez ditut erabiltzen, oso gutxitan bakarrik, baina oraingoan agertu behar zirela uste nuen, lehen aipatutako egoerak hobeto islatzeko.

Erakusketa honetako koadroek ba al dute loturarik?

Bakoitza istorio bat da. Batzuk saketik sortu zaizkit, beste batzuk berriz, azalekoak dira. Halere, bozetoak egin nituenean sakonetik sortutako horiek sakonagoak zirela iruditzen zitzaidan; orain berriz ez diet horrenbestearinoko



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitik eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Baltasar Etxabe, 5
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a



- kamisetak
- txiskeroak
- paperezko poltsak, e.a.

baltasar etxabe 7 tel: 86 05 69

sakontasunik aurkitzen, plastikoago bihurtu dira.

Askotan gertatu al zaizu, adibidez, "koadro hau egin behar diat eta ederra izango dek", eta gero bukatutakoan gustatu ez?

Hori beti gertatzen da. Koadro bat egiterakoan, hasieratik bukaerara asko aldatzen da. Nahiz eta oso garbi izan zer egin nahi dudan, gero ni neu harritzen naiz nora bideratzen den. Ni gainera, momentu batzuetan itsutu egiten naiz eta zaila egiten zait jakitea noiz dagoen koadroa bukatuta. Horregatik koadro bat egiten dudanean ezkutatu egiten dut, bestela aldaketa mordoa egingo nizkiokelako.

Nor da gehien gustatzen zaizun margolaria?

Uff...Ez daukat erreferenterik. Harritzen nauena gustatzen zait, besterik ez. Zein da koadro baten bilakaera erakusketara iritsi arte?

Garai batean dena bozetoekin egiten nuen. Orain, berriz, koaderno txiki batekin ibiltzen naiz, eta bertan, ikusi dudanaren edo bururatzen zaidanaren apunteak hartzen ditut. Baina askotan erabili ere ez ditut egiten.

Gero tailerreko prozesuak ez dauka misterio handirik. Gainera, artistak bere teknika zein den ez du esaten.

Artea kopia edo originala da?

Nik uste dut artean originala asko dagoela, halere gaur egun oso zaila da originala izatea erreferente asko daudelako. Originala izanda ere, beti dago norbaiten eragina. Orain gainera, zenbait jendek aberasteko asmoarekin beste norbaiten lanen oso antzekoak egiten ditu.

Artearen ikuspegitik, Guggenheim-ek mesederik egiten al dio Euskal Herriko artistari?

Ez, hemengo artistek oso gutxitan parte hartu dute bertako erakusketetan. Aitortu behar da Bilbo asko indartu duela, baina oso amerikanoa da, euren helburua jendea

erakartzea da, eta berdin zaie nola (moto-erakusketa...).

Hemengo artistak kanpoan ondo ikusita daude, baina hemen bertan ez daude behar bezala baloratuta. Gauza

handiak egitera jotzen dugu, txikiak alde batera laga eta merezi duten balioa aitortu gabe.

Artistei buruz esaten da pertsona arraroak direla. Zure burua arrarotzat al daukazu?

Ez dut uste hain arraroak garenik. Geure kezkak kanporatzen ditugun aldetik, egolatrak, berekoiak izan gaitzke, baina biluzte hori beharra izaten da askotan.

Forondan margotzeko ikastaroak ematen dituzu. Nolako erantzuna izaten dute ikastaro horiek Zumaian?

Ona, urtero hogeita hamarren bat lagun biltzen gara. Jende horri pintura klasikoa gustatzen zaio, paisaiak, bodegoiak...errealismoa. Hasiera batean, beraien burua ez zuten pintatzen ikusten, baina denborarekin koadro onak egitera iritsi dira. Poza handia ematen dit horrek, jendeak ezkutuko zaletasun hori ezagutzeko eta garatzeko aukera izatea.


Ikastolan ere ibili zinen plastika erakusten. Horrek laguntzen al dizu orain, klaseak ematerakoan?

Zeharo ezberdina da. Errazago pasako ginatke plastikatik arte modernora. Hezkuntza mailan hutsunea dagoela uste dut, lehen behintzat hala zen: plastika, erlijioa eta soinketa katxondeoko ikasgaiak ziren. Ez zitzaion garrantziarik ematen, eta

badauka, pertsonaren garapenerako oso baliagarriak direlako. Orain gauzak hobetu egin dira, baina badagolan gehiago egitea.■



Ander Hormazuri Zumaian jaio zen orain dela 35 urte. Debako Arte Eskolan grabatua ikasi zuen, eta gero Aiako Tailerrean sei urte pasa zituen. Ondoren, Arruan Keixetakin egin zuen lan. Orain Zelai Azpi tailerrean bere obra egiten jarraitzen du. Urte hauetan txalaparta eta pintura irakaslea izan da.



Egun bat estropa detan

Gehienak berbenarako presatzen ari ziren bitartean, gu estropada bateko giroa jasotzera joan ginen Ondarru aldera, ikusten dena eta gehienbat, ikusten ez den hori erakusteko asmoz.

ARRATSALDEKO hirurak eta hogeita bost dira, eta Basusta parean gaude, itsas kiroldegia iren ondoan. Irte-tzeko ordua hiru t' erditan da, baina jende gehiena hemen dago, estatxari heldu eta abiatzeko prest. Protagonista nagusiak, arraunlariak, aparte xamarrean daude, lurtean eserita, harri gogorraren gainean... baina hauek ohituta daude edozein lekutan esertzen, traineruan nola eseritzen diren ikusi besterik ez dago. Ondoan dituzte estropada bukatu ondoren jango duten fruta piloa, eta laranja koloreko likido batekin betetako ur botilak. Tertulian ari dira, giro jatorre-

an. Zertaz? Auskalo!! Metro batzuetara gaude beste guztiak, niki gorriak jantzita eta bandera bat ere tartean dela, hori bai, petrilean jarrita edo tente: arraunlarien guraso eta neskak, zaleak eta gu. Norbaitek ekarritako argazki handi batzuei begira gaude, eta bertan arraunlariak ageri dira; estropada bat bukatu ondoren ateratako argazkia ematen du.

Horretan gaudela, autobusa iritsi da, dotorea, azkenengo modelo horietakoa, abioia ematen duen hauetakoa. Txoferra ere kategorikoa.... jazkerari begiratuta, behintzat. "Korbata eta guzti etorri ez da ba!! Ezta Real Madrikoak bagina ere" bota du batek. Aurreneko parre algarak egin ditugu...

Poliki-poliki abioian (barkatu, autobusean) sartzen hasi gara. Hiru t´ erdiak dira. Arraunlariak erditik atzera jarri dira, eta beste guztiak erditik aurrera. Ia-ia bete ditugu autobuseko tosta guztiak.

"Besteetan baino jende gehiago zagok" esan du arraunlari batek. Pozteko datua. Gu erdi-erdian gaude, batzuen eta besteen esanak jasotzeko asmoz.


"Luxia? Non da Luxia?"

Bost minutu pasa dira, baina oraindik ez gara atera. Zer gertatzen da? Halako batean, aurrekaldeko ahots batek. "Luxia? Non da Luxia?" Adios!! Entrenatzailea falta. Eta orain zer? Minutu erdi batez tentsioak gora egin du, baina Iñaki Unanue arraunlariak denok lasaitu gaitu: " kotxean joan da, lehenxeago". Puff!! Denok arnasa lasai hartu, eta Luis Unanue balekoa eman ondoren, aire!! Ondarrura!!

Ondarrura bidean

Txikiardi parera iritsi orduko, Martin arraunlaria bideo-zinta baten bila doa

"Luxia? Non da Luxia?" Adios!!
Entrenatzailea falta.
Eta orain zer?



atzekaldetik aurrera, baina kale!! Ez dago pelikularik!! Ziaboga eman eta buelta atzera, bere lekura. Bitartean, gure atzean eserita dauden Iñaki Unanue eta Felix Aizpurua arraunlariak tertulian ari dira, estropadari buruz hitz egiten. "Lautan banatu behar diagu estropada, luze

bakoitzaren arabera", esan dio batek; besteak berriz, "gaur konfidantza zeukeat". Ea horrela den. Felixen eta Iñakiren arteko hitz-aspertua azkar zabaldu da inguruetara, eta beste arraunlari batzuk ere solasean hasi dira. Arrauna gora, arrauna behera... oriotarrak ere tartean direla,

nola ez ba!! Patroia, oriotarrena, ez dute leku ederrean jarri, " Carrillok orduak kontatuta omen zeuzkak!!". Orion ez dute patroiekin asmatzen, urtea joan eta urtea etorri, patroia- aldaketa. Patroietaz ari direla, Castroko patroia izandakoa ere ahotan darabilte, "Lutxanara joan duk Zurinaga".

Itziarra iritsi bitarteko aldapetan hamai-ka zia boga eman ditu korbata-
dun patroia duen autobu-
sak. Eta oraindik beste
horrenbeste eman
behar Debara iritsi
baino lehen. Itziar-
tik behera ikusten
dugun itsasoak
patroien hizpidea
utzi eta Ondarruko
estropadari heltze-
ko aitzakia eman die

arraunlariet. Ikusgai dugun itsasoari buruz ari dira. Bare-bare dagoela ematen du. Hau arraunlariet ez zaie batere gustatu, ezta beste guztioi ere. Zergatik ote?

Iritsi gara

Begien bistan daukagu Ondarru, "la ciudad sin ley" esaten diotena. Orain bai, orain ederki ikusten dugu estropada ere-
mua, eta Itziartik behera ikusita-
koa baieztatzeko besterik

ez digu balio izan. Itsa-
soaren legeak behin-
tzat, betetzen dira
Ondarrun...Beste
zerbaitengatik
izango da orduan
lege kontu hori.
"Igerilekua dirudi"
bota du batek; beste
batek, berriz, arraun-

Beste
batek, berriz,
arraunlariak
desanimatu ditu, animatu
beharrean, "gaur laugarren,
baina tandan" Bejon-
deiola!! Hori da hori
animatzea...

lariak desanimatu ditu, animatu beharrean, "gaur laugarren, baina tandan" Bejondeiola!! Hori da hori animatzea...

Laurak eta hamar dira, eta Ondarrura iritsi gara. Kalatrabaren zubi ospetsua pasa ondoren, autobusa gelditu eta zaleak eta gu jaitsi egin gara; arraunlariak aurrerago jaitziko dira, trainerua dagoen lekuan. Agurtu eta zorte ona opa diegu arraunlariet. Itzaropena beti goian...

Ondarru ezagutzen ez dutenak batera eta bestera begira ari dira zer ikusiko. Hori bai, legerik behintzat ez dute ikusiko, ez omen dago eta...Bitartean, taldea banatu egin da: mutil-koskorak alde batera, neska kuadrila bestera, eta multzo handiena osatzen dugun hamaboskotea, nola ez ba, taberna batera. Beno, hobe esateko terraza batera. Aulki bana hartu, itzalpean jarri, eta egon. Terrazako balizan kateatuta gelditu gara nonbait, eta



hemen dator epailea, kamarero jantzita, bandeja eta guzti. Hau bai epaile jatorra, eta ez beste bat... Ebakia, kafea, kopa, garagardoa...denetik eskatu diogu. Berehala egin ditu egin beharrekoak, eta denok gaude bakoitza bere edariarekin.

Porra

Oraindik ere terrazako balizan kateatu-ta gaudela, Kastrokoek bi traineru ekarri dituztela konturatzen gara. Hor doaz Kalatrabaren zubi gainetik. " Bi traineru? Guk bakarra, baina todoterrenua" bota du batek. Horiek algarak horiek!!

Jendea animatu egin du horrek, eta porra egin behar dugula erabakitzen dugu. Euro

Porra
egin behar
dugula erabakitzen
dugu. Euro bana jarri
eta zumaiaarren
postua asmatu
behar

bana jarri eta zumaiaarren postua asmatu behar. Denetik entzuten da, hori bai bosgarren postutik gora inork ez du apostu egin. Zumaiaarrak ez direnek ez dute esperantza handirik: zestuarra uste du hamabigarren, azkena alegia; Arruakoak eta azpeitarrak hamaikagarren. " Lehorreko hauek ez ditek ulertzen" esan die zumaiaar batek. Bik uste dute hamargarren izango dela Telmo Deun; bederatzigarren esan dugu guk; zortzigarren beste bik; batek zazpigarren; seigarren izango dela uste duten bi ere badira; " bosgarren baietz!! " entzuten dugu bapatean. Beste guztiak aurpegi arraroarekin begiratzen diogu. " Zergatik ez dugu bosgarren buka-



ile-apaindegia



ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



MENDI - ONDO C.B.

ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21

Tel. 943860074 - 943861569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97



HARRAPA ZAK

ORAIN ANIMATU BEHAR ZAIE

TELMO DEUN aurtan ez dabil lehengo urtean bezain ondo. Hori begibistakoa da. Motiboak ere badituzte iazkoa ez errepikatzeko. Joan zen urteko koadrilatik batzuek utzi egin dute, eta horien ordeaz gazte mailatik igo dira arraunlari gazteak. Eta gazteek denbora behar izaten dute. Normala da, beraz, iazko maila ez ematea.

Joan zen urtean, herrian olatu gorria nagusitu zen, niki gorriak edonon ikus zitezkeen, jende guztia bero-bero zebilen... Normala da hori. Bat goian dagoenean erraza delako bere ondora arrimatzea.

Baina gauzak "okertzen" direnean, zer? Bada, askok eta askok alde batera uzten dutela, euren laguntza ukatzen diotela lehen goian ibilitako horri. Eta Zumaian ere gauza bera gertatzen da. Zenbatek esan ote du aurtan getariarrak falta direlako dabiltzala gaizki? Beste askok ere aurtengo koadrila eskasa dela esango zuen. Eta horrelako hamaika disparate...

Neurria behar da horrelakoetan, bai goian dagoenean, bai hain goian ez dagoenean ere. Goian izan edo ez izan, berdin-berdin da Zumaiko trainerua. Eta animoak beti baldin badira beharrezkoak, orain eta aurtan, gehiago. Arraunlariak eskertuko dute. Bai horixe!!

tuko? "bota digu harro-harro. Ea horrela izaten den...

Azkenean, behintzat, terrazako balizatik askatu gara, eta bagoaz tipi-tapa estropada ikusteko lekua hartzera. Arratsaldeko bostak dira. Moila aldera iristearekin batera Telmo Deun uretara botatzen ari direla ikusten dugu. Hamar minutu geroxeago iritsi gara estropada ikusteko aukuratu dugun lekura. Lasai-lasai eseri eta zai egotea besterik ez zaigu geratzen.

Estropada

Lehen txandako kale-zozketa egin dute. Zumaiarrak bertan ariko direnez, erne-erne entzun dugu bozgorailuetatik

esandakoa: "lehenengo kaletik Onadrru; bigarrenetik Pedreña; hirugarrenetik Elantxobe; eta laugarrenetik Zumaia" esan du ondarrutarren hizkeran. Kale bat tokatu edo bestea tokatu ez omen dago alderik, itsasoa bare-bare dagoelako. Hala esan dute, behintzat, "adituek".

Hasi gara, beraz, estropadako giroan murgiltzen. Trainerutik kanpo gelditu diren arraunlariak ere guregana etorri dira, eta horrek ere estropada-giroan gehiago murgildu gaitu. Beraiek esan digutenez, lau epaile bakarrik etorri dira, bestetan sei etortzen badira ere. Zergatia? Ia denboraldi guztian ondarrutarrekin izandako arazoak. Ai!! Ondarrutarrak eta

legea ez direla ondo konpontzen!!

Seirak pasatxo direnean hasi da estropada. Jendearen urduritasunak ere gora egin du. "Ez goaz ondo" entzun diogu zumaiar bati; "ondo goaz" erantzun dio beste batek. Horretan garela, aurreneko zia-boga eman dute. Albiste txarrak: Telmo Deun azkenengoa da. Bigarren luzean ere berdin, azkena. Baita bigarren zia-bogan ere. Aurpegi ilunak nagusi gure inguruan. Eta porra Zestura? Akabo!! Hirugarren luzean antzeko, atzean. "Nora doa?" galdetu du batek zumaiarren norabidea ikusita; "oso atzean goaz" da gehien entzuten den esaldia. Azken zia-bogan ez dira gauzak aldatzen, azkena. Denok etsita gaudenean, ordea, ezustekoa. Azken luze ikaragarria egiten ari da Telmo Deun. Luze erdian hirugarren gara, Ondarru atzean lagata. Bigarren doan Elantxobe-Arkote ere nahiko hurbil dago. Azkenean, hirugarren. Ez dago gaizki estropada nola joan den ikusita.

Beste bi txandak ikusten gelditu gara. Azkenen, gorriek irabazi dute Ondarruko ikurriña, Kastroko gorriek. Normala, bi traineru ekarrita...Beste gorriak, gureak, hamargarren. Eta porra Zumaira!! Biren artean banatu behar, ordea. Izenik ez dugu esango, loteriak eta antzekoak tokatzen zaizkien izenak ere ez dituzte esaten, eta gu ere ixilik egongo gara, badaezpada ere!! Autobusean ikusiko dugu arraunlariak gustura dauden ala ez...

Zumaira

Autobusa dagoen lekuraino berriro ere tipi-tapa joan gara. Tostetan eseri, eta



NARRONDOS
TABERNA

Goizeko 5:30etatik
astelehenetik larunbatera
PINTXO eta OGITARTEKOAK
TEL: 943 86 24 90

Arraunlarien aurpegieta antzematen dugun bakarra nekea da, ez pozik ez tristurarik.

bagoaz arraunlariak jasotzera, herrian bertan baitaude. Bost minutu beranduago denok bildu gara autobusean. Arraunlarien aurpegieta antzematen dugun bakarra nekea da, ez pozik ez tristurarik. Neke hori arintzeko edo, errokillatzea bat eskaintzen die zale batek. Segituan heldu diote arraunlariak. Ez dute asko iraun, konturatzerako desagertu dira. Eta hori, lehorrak zeudela; eskerrak....

Ezusteko oihu bat entzun dugu bapatean: " aupa Goñi!!" oihuka ari da arraunlari bat. "Galduta ere aupa Goñi!!" Gainontzeko arraunlarien algararen sortu du horrek. Estropada egiten ari zen bitartean Belokik eta Goñik buruz buruko partida jokatu dute, eta Beloki nagusi. Halare, "aup a Goñi!!"

Hasi da, beraz, giroa berotzen. Arraunlariak ere estropadari buruz

hitz egiten hasi dira. "Bestetan ezer egiten ez bada, alferrik da azkenengo luzean egitea" esan du batek. Ez daude gustura, baina, halere, umore ona da nagusi. " Gu regularrak gara, beti hamargarren" esan du Goñi animatzen ari denak. Hori-hori, beti hamargarren eta gustura. Ez da filosofia txarra, ez horixe!!

Bien bitartean, Felix Aizpurua sobratu zaizkien otartekoak eta fruta eskaintzen ari da autobusean zehar.

Horrela, giro jator horrekin, Deba pasa eta goruntz, Itziar aldera. Berrir ere zia boga piloa eman ondoren, Arrua aldera iritsi gara. Bost minutu pasatxo egin eta Zumaian gara, itsaskiroldegi parean. Elkar agurtu eta bakoitzak bere bidea hartu du. Arraunlariak atsedean hartzera, eta beste batzuk Erribera kalera... ■



LEIZE taberna

Juan Belmonte, 6



Baselari Auzotegia, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMAIA



amaia plaza, 2
Tel. 943 143278



Erribera kalea 18 Beñe Tel./Fax: 943 143097
20.750 Zumaia ekin@ekinad.com


Estalatzaila/bamatzaile ofiziala



tresna digital
internet
scanner



Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95



Koop. Elk.

Nekazaritza Injeneru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)

Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
...mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kiral zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoak,
Balarazioak

ALTZARIAK OSTOLAZA AROTEGIA



Mota guztietako
altzariak eta
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

Giro politiko nahasiak

Historia

1 868KO iraileko iraultzak "Revolucion de la Gloriosa" izenekoak Isabel IIa erregina tronutik kendu eta I Errepublika ezarri zuen Espainian.

Hego Euskal herrian gogor borrokatu zen liberalek sortu zuten iraultza horren kontra.

Zumaian egoera bitxia gertatu zen:

Erregimen berriak Udal berri bat ezarri zuen, baina azken hauteskundeetan aukeratuak izan ziren Udalbatzako kideek ez zuten amore eman eta bere agintaldiarekin jarraitu zuten, beraz Zumaiaiko herria bi Udalen agindupean aurkitu zen.

Egoera konpondu nahian gobernadore zibilak elkarriketak bultzatu zituen, baina egoerak berean jarraitu zuen azkenean bi udalak indargabetu eta Miguel Echabe zinegotzia alkate izendatu eta udal berri bat ezarri zuen arte.(hala ere istiluak ez ziren amaitu)

Gobernu liberalak gure historiako lehen hauteskunde demokratikoak egin zituen, eta gizonezko guztiek parte hartzeko aukera izan zuten (askoz beranduago iritsiko zaie demokrazia emakumeei).

Gure udalerrian , hauteskunde mahaiko hiru kidek(Chapartegui, Zigaran eta Trueba jaunek)



Inaxio Tolosa
Aktorea

Agustín Urbietak alkategaiaren nagusikeria eta gaitasun eza , protesta formalez Diputazioan salatu zuten, baina ez zitzaion onartu eta Urbietak alkate-tza lortu zuen.

Don Karlos errege izendatu eta bide batez liberalen iraultza geldiarazteko asmoarekin, 1872ko apirilean "Bigarren Karlistada" hasi zen.

Zumaia gehienak , bero-bero eginda, karlisten armadan sartu ziren, nahiz eta handik gutxira batzuk armada utzi eta gobernuak eskainitako indultoa onartu.

1876ko otsailean, karlistak "Marine" izeneko brigadarekin, Zumaia, Oikia , Aizarnazabal, Ibañarrieta eta Arroaz jabetu ziren.

Ez zen ordea, inongo indarkeriarik gertatu, ez zen tiro hots bat bera ere entzun, dagoeneko baziren hiru urte liberal bat bera ere ez zela ikusten gure inguruan.



Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza

OSTOLAZA

BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea
tel: 943 86 16 66
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

Oikiko ume garaiak Euskara

UZTAILEKO zenbakian garai bateko Maria eta Jose Ikastetxearen ingurukoak

kontatu genizkizuen.

Oraingoan Oikira jo

dugu, bertako eskolaren

eta txikitako jolasen berri jakiteko asmoz. Eta horretarako Brigida Ibarbiaren laguntza bikaina jaso dugu.

Ea zer kontatzen digun...

Maestra beti beti plazan eoten'tzan gure errekreoko denpuan, hantxen jarri bazter batian, zeoze baldin bagendun eo, beti beti geuri beira. Eta guk errekreuan dan dana euskeraz. Atia muga gendun eskolan sartzeko, mua. Handikan barrura dana erderaz. Eskolan erderaz. Han ikasi gendun, eskola barruan erderaz, eskolatikan kanpora euskeraz. Dotrinatan dana euskeraz ikasi gendun, dana, irakurtzen ere euskeraz da erderaz berdin'tzan guretzako.

Begibistakoa da "maestraren", andereñoaren oroitzapen ona daukala...

Ta ordun maestrakin ere ba, oso oso ondo atendi-ttuak, hark etzun iñor'e apartatzen, beltza o zuriya o sea, danantzat berdina zan. Lau urtekin hasi ta hamalau urte arten maestra bat. Hamar urtekuentzako maestra bat. Taldiak edadekuak giñan, bi urtekin horrela osatzen giñan taldiak. Batzuek hamen ikasten ixkiña baten'tzeuden bitartian, beste taldia beste alde-

Ibon Manterola
Hizkuntzalaria



ko muturrian, ditaduak o kopiak. Eskailereta, gora iyo-tzeko eskailereta igual talde bat ateako giñan, zeoze ikasi bihar bagendun baiño. Eskulana're bai, goizetik eskola, arratsaldian ordubetian eskulana izaten genun neskak. Mutillak dibujua bitartian. Nik Oikiyako eskola, esan nahi nuke, handik erten da danak, kanpoa jun'tzianak ere bere maila erantzun in'tzuen. Izan'tzan maestra bat baina on ona, on ona, beti esaten detena nik.

- Ta jolasian mutillak eta neskak batea ibiltzen al'tziñaten?

Danak juntuan, danak berdin, danak berdin izaten giñan, pelotako bezela, fueraka esaten gendun. Pelotan, frontoian, lehorra baldin bazeon plazan, eta bestela zimitayuan. Zimitayuan bi gela bezela ite zian, alde batea ta bestea. Eta danak berdin, edadekuak ume txikiyauak, axakaponetan. Axakaponak'e geuriak giñun, zeñek baiño zeñek hobiak, ahariyenak izaten zian garai artan onenak, axakaponak. Uain ere badazkat nik gordeta arkumienak, gorde ite'ttut uain ere, eztittut ibiltzen, eztittut ibiltzen baiño gorde ite'ttut aizua, neure zean. Axakaponak parez parezka're bai harri koxkorraikin, kuadruakin, rayakin da parez parezka esate giñun. Erreka, saltaka, soka, pelota, hoiek giñun geure jolasak. Geo maestrak bazun beak diaboloko hoietako bat, ikasi genun ederki asko, uain urtiak geyo in gabe baiña, haiek jun'tzian, baiño beak ederki ibiltzen'tzun.



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



Ricardo J. Azcue Yeregui

Abokatua • Asegurak
Finan Administrazioa

biomín aguirre 4. behe
20.750 zuzkila (guzkila)
E-mail: garzua@euskalnet.net

Tel. 943 862651
Fax: 943 862746

Rosi
garbiketak


* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Errota garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

Abuztua izanda...

Nolatan Zumaian

kanpoa jun gabe?




Maribi Garate
Hemen herriyan bertan oso ondo pasatzen dalako. Ez dao derrigorrez kanpoa jun beharrik.



Felix Aizpurua
Nahizta gaurko egunian egarri haundiya eon kanpoa ateatzeko, herriyan ondo pasatu leizkelako, bai herriyan antolatzen dian gauzetan parte hartuaz, bai inguruko herri-
yetako festeta junda. Kanpoa jun gabe bertan ondo pasatu leizke, nahizta aurtan egualdiyak bate lagundu ez.



Edurne Egaña
Uain, momentu hontan dirua aurreatu beharrian naolako..



Nekane Txapartegi
Eztaolako horrelako Benidor-
mikan. Zumaia baino ederroik ba
al dao ba?



Zorione Saez
Eztakit...baina ni kanpuan eon naiz, udalekutan.

STAIOM
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3

943 860151



SIWA
Belardenda

Besadi 9
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak,
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajek
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak



INMOBILIARIA 943 143361

BIDAIK 943 143323

Ortega y gasset, 1

Abuztuan batzuk Zumaian, beste batzuk...

EZKERRALDEAN AGERI diren hauek eta beste askok Zumaian gelditzea erabaki badute ere, kanpoan, hor zehar dabiltzan zumaiaarak ere ugari dira.

Horietako "kanpotar" batek hemen behean daukazuen postala bidali digu. Finlandian edo omen dabil, ez dakigu seguru, baina hor goikaldean dabilela gauza jakina da. Abesti bateko "egun finlandiar bat, egun finlandiar luze-luze bat..." ezagututa izango du honezkero, baita sauna

eta horrelakoak ere. Ez da ez alferrik galduko!! Ez horixe!!

Beste bat ere goikaldean dabil, baina hau pixkat beheraxeago, alturarekin beldurtuta edo... Irlanda aldean ikusi omen dute azkenengo aldiz, baina honek kale egin digu, ez digu ez postalik eta ez ezer bidali. Hau duk tipoa hau!! Bere berririk, hortaz, ez daukagu. Beraz, norbaitek ikusten badu esan diezaigula. Faborez!!



Tapaia
Zumaia

Erribera Kalea 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

**TOMAS
TABERNA**

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitarkeak

E. Gurrutxaga plaza

943 86 19 16

AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1

Tel. 943143505

Oier Aizpurua, Europako Txapelketan zilarrezko domina

Apirileko gure tourra Milanen hasi genuen, Munduko Kopako proban. Urtean horrelako bost proba izaten dira, toki ezberdinetan, baina gure laukotearen helburua ez zen Munduko Kopa, handik egun gutxira Hungariako Szeged hirian jokatu zen Europako Txapelketa baizik. Gauzak horrela, guretzat entrenamendu bikain bat izateaz gain, arerioen sasoia eta geurea neurtzeko aukera ederra zen Milangoa. 200 metroko lasterketan aurrena geratu baginen ere (eta 1000koan eta 500ekoan bigarren), gure sentsazioa ez zen ona, entrenatzen ez ginen oso gustora ibili, etab.

Gainera, laukoteko batek mina hartu zuen behin regatak bukatu eta gero. Uste genuen bizkarraldeko muskuluren batean hausturaren bat zuela, baina bai zera, izugarritzko abujetak zeuzkan!

Hungarian piraguismoak izugarritzko indarra dauka

Ikusgarria benetan. Seguraski ez duzue jakingo, baina Hungarian piraguismoa kirol nazionala da. Hemen futbolistak nola, han piraguitak halaxe. Egunkarietako azalak piragusimoak betetzen ditu eta telebistako publizitatean (yogurrak anuntziatzen, drogen aurkako kanpainetan...)

Milanera entrenamendu on bat egitera eta arerioen erreferentzia hartzera joan ginen)

piraguitak azaltzen dira, autobusetako posteretan ere piraguitak dira jaun eta jabe, etab. Bertako telebistako lehenengo kateak ere zuzenean eman zituen finalak. Eta hori gutxi balitz, kalean autografoak sinatu eta sinatu. Ez dut esan nahi han famatuak garenik, ezta pentsatu ere, baina piraguita itxura genuenez (hori behintzat badaukagu!), bertakoek argazkiak eskatzen zizkiguten. Benetan ikusteko modukoa.

Kontuak kontu, iritsi zen apirilaren 18a, Europako Txapelketen hasiera. Gure moralak lurpean zegoen. Taldeko batek ezin zuenez entrenatu (abujetak gora eta beheara...), bi egun egon ginen tripulazio osoa uretan sartu gabe. Hotelean ere ez geunden oso pozik, tratua ez zelako oso egokia (azkenean mehatxua bota genien, "edo jarrera aldatu edo Sevillan ospatuko den Munduko Txa-

pelketan gorriak ikusiko dituzte hungariarrek!", eta balio izan zuen).

Apirilak 18ko saioan (goizeko serieetan) gauzak hobetzen hasi ziren, ez ginen uste genuen bezain txarrak...eta hurrengo goizeko finalerdietan hirugarren sailkatu ginen, beraz, finalera! Laukotearen animoak ere goraka joan ziren, eta horretan inguruak asko lagundu zigun. Imaginatu 40000 edo 50000 pertsona, harmailetan, ibai ondoko zelaietan, asko eta asko kanpaiekin, tanborrekin, turutekin... Regatak hasi baino ordubete lehenago guztia leporaino beteta, Citröen bezelako etheen stand multzoa ibaiertzean, etab.

Gauzak honela, lehenengo finala apirilak 20an jokatu genuen, 1000 metroko finala. Seigarren bukatu genuen, baina kontuan hartuta bigarrenetik zortzigarrena segundu baten barruan geundela, ba pozik egotekoa zen. Berdintasun izaugarria zegoen! (adibidez, Milanen aurrena geratu zirenek bederatzigarren bukatu zuten). Arratsaldean 200 metrotako kanporaketan izan ziren eta bigarren bukatu genuen, han heroe nazionalak diren bertakoen atzetik.

Biharamuna egun haundia izan zen, goizean 500eko eta arratsaldean 200eko finalak izan ziren eta. Goizeko saiora ira-




Mota guztietako altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385

B. Etxegarai 2, beheak
943 86 27 14



GAZTEEN ERAOIA

ZALLA
Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

bazteko asmoz joan ginen, regata bikaina egin genuen, urrea edo zilarra geure eskuetan sentitu genituen... baina bosgarren bukatu genuen. Berririo ere berdintasuna oso haundia izan zen eta gure moralak behera egin zuen!

Final guztietan izugarritzko berdintasuna egon da eta horrek itxaropen haundia ematen digu Sevillako Mundialari begira

Psikologoaren laguntza eta guzti, arratsaldean 200 metroko finalera amorruz beteta joan ginen, faborito ziren hungariarrei disgustu haundi bat emateko asmoarekin. Pentsa, hain haundia zen gure odol beroa eta itsutasuna, lehehengo paladan huts egin genuela! Horrela, hasieratik piraguarren muturra erakutsi ziguten arerioek... baina hortzak estutu, izugarritzko erritmoa hartu (normalean 150 palada egiten ditugu, ba final honetan 170 egin genituen!) eta bigarren bukatu genuen, eslovakiarren atzetik eta hungariarren aurretik.

Podiumekoa ederra izan zen. Pozez zorutzen geunden, podiumera igotako denek bezela bandera batean gure izena idatzi genuen (beno, eta nik "Gora Euskadi" ere bai...), auskalo zenbat argazki atera zizkiguten, hunkitzeko modukoa benetan.

Urtea nolakoa joan den ikusita, niretzat aukera ederra da Sevillakoa

Askok pentsatuko duzue kriston parranda egin genuela egun hartan. Ba ez. Szeged-etik autobusez Budapestera, goizeko lauretan hegazkinean Milanera eta hemendik Madril. Ez pentsa, Milanekoa eta Szegedekoa oso gogorra izan da gorpuztarentzat. Azkenengo momentura arte zalantzan egon da nire partaidetza, bizkarrak ez daukat eta oso ondo. Joxema Balentziagarengatik izan ez balitz, seguraski ez nintzen errekuertatuko eta etxean geratuko nintzen.

Eta orain, Munduko Txapelketa, Mundiala, Sevillan, abuztuaren 28tik aurrera. Prestaketa Asturiasko Navian egingo dugu, eta ea dena ondo ateratzen den. Tripulazioak orokorrean hain berdinduta gaudela ikusita, ez dago esaterik ze gertatuko den. Hori bai, ematen du 200 metroan aukera gehixeago daukagula, besteak baino arinagoa delako gure laukotea, baina auskalo ze pasako den. Guk animoak bero-bero dauzkagu eta zumaier kuadrilla bat Sevillan bertan izango dela jakinda, Mundiala has-teko amorratzen nago.



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAlA MOTOR

Santixo auzoa, 22
Tel./Faxa: 943 143143

ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
Tel. 943 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

Distira handiko hotela

GARAI BATEAN ZUMAIRA jende aberatsa eta kategorikoa etortzen zen uda partean. Hango konde, markes eta horrelakoak gure herrira etortzen ziren. Itxura batean orain Marbella denaren antzekoa zen Zumaia. Eta noski, kategoria horretako jendeak tokia ere horrelakoa behar uda pasatzeko. Hotel Amaia zen leku hori, ezagutu zutenen hitzetan, kategoriazko hotela, lujozkoa.

Bertan jatorduak zerbitzen ibilitako batengana jo dugu orduko kontuak jakin nahian. Hotela deskribatzeko eskatuta haxe kontatu digu: *beyan bar-a zeon, garajiak eta almazenak....danetik zeon azpi hartan; hemendik juten giñan gu, lanak einda geo gora, zinia ikus-tea. Goian sukaldia zeon, komedore handiya jendientzako, eta beste bi komedore, txikiyak, zerbiziuentzako, aberatsen txoferrentzako eta donteillentzako. Zini're bazan, baita saloia're, butaka ta guzti. Goyan kuartoak zeuden, famili guztiyentzako're bai, bakoitza bere balkoyakin. Lujozkua zen, bai.*

Eta jendea? Nolakoak ziren goi mailako pertsona haiek? Ezin izan edozein modukoak, ez horixe. Honela gogoratzen ditu berak: *"de kategoria", kondiak, markesak...neskame ta guzti. Biren oroitzapena ondo gogoan du: Don Mariano mutilzarra zan, txikiya, edade-kua. Jendiai ta konbidatzen ibiltzen'tzan. Belmonte toreru'a're etortzen'tzan, korrideta, ta han eoten'tzan dotore, andriakin... Danak tituloko jendia zian.*

Halako hotel batera ezin bada lo egitera eta jatera bakarrik etorri: *berbenak eta're iten'tzian.* Hauek ere lujozkoak izango ziren...Ez ziren ez alferrik galduko gure konde eta markesak.

Baina titulodun hauek baino goragoko bat ere hurbildu zen Hotel Amaia. Erregea bera!! Alfonso XIII. eta erregina!! *Erregia bea etorri zan erregiñakin eta semiakin.* Bisita horren inguruan bada egoera zelebreren bat edo beste: *semia, erregiana, hoteleko tabernan, barrian zebilen batea ta bestea. Hortan, Zumaiko banda're azaldu da bar horreta, ta bandako batek erregian semiai esan diyo, buruaren tamañai beiratu ta eskuakin buru gañian jestuak iten'tzitula:*

-Hau da mutil earra!!



Eta bandako beste batek, ume hura ezautu eta erantzun diyo:

-Ez al dakik hori erregian semia dala?

-Ez, baña igual dek, hau dek mutil earra!!

Hotel Amaiaeren bueltan bada, gainera, kontu bitxi bat. Orain modan daude multinazional eta halako eta holako elkartzak, baina garai hartan ere bazen horrelako zerbait: *Azpeitiko kasinua eta Hotel Amaia soziedade bat zian, bat inda zian.* Oraingo neoliberalismoaren aintzindariak ote?

Gauzak ederki eta ondo zioazkion gure Hotel famatuari, baina gerra ere etorri zen, eta orduan aldaketa batzuk izan ziren, nahitaezko aldaketak. Esan bezala, gerra garaia zen, eta hotela zena beste zeregin batzuetarako erabili zuten: *ospitala izan'tzan, baita Hotel Zumaia're. Herituak eta libre utzitako soldauak ekartzen'tzituen. Hayekin trukia iten gendun guk: erropa garbitzen giñun soldauai, eta hayek trukian oliyua emate ziun beayen potuetan sartuta.*

Urteak aurrera joan ahala, ordea, hotelera zetozenak gutxitu egin ziren. Hori dela eta, hotela itxi eta azkenean bota egin zuten. Berarekin joan ziren Zumaia ezagutu zituen lujo eta kategoriako bisitak. Hori bai, misterio kutsua dauka hotelak. Bertan erabiltzen zituzten kubierto eta horrelakoak zilarrezkoak ziren, baina harrezkero inork ez omen ditu ikusi. Non ote dira?





EH SUKARRA: galtzailearen egunak

TALDEAREN SORRERAN "Kaleko rock"-a bezala definitu zuten hainbat kritikok Eibarko talde honen musika. Gaur, hamar bat urte beranduago, ildo berari jarraitzen diote nahiz eta musika landuagoa eta pop ikutu handiagoz.

Norton, Cesar, Fakun ta Olaba laukoteak taldearen sei garren lana aurkezten digute, Galtzailearen egunak. Oraingo honetan ere, beste diskoetan bezala, Asier Serrano izan da abestiei hitza jartzeaz arduratu dena. Aurreko lanaren bidea jarraitzen dute, "Sua urtzean", beti ere sustraietara keinu eginenez; era honetan, Nor da hiltzailea? abestiak E.H.ren lehen diskoa gogorarazten digu, batez ere ahotsean erreparatzen badugu.

Diskoa ezagutara emateko Senaren Zama izan da aukeratu duten lehen single-a, erritmo bizi eta melodia itsagarri bezain gustagarri batez jantzia. Hamar abestiz osatutako lan honetan zaila egiten da abesti egokienak izendatzea, baina bat edo beste esatekotan Ama-galdua, hard core ikutuko abestia, Bihotz galdua, heavy kutsukoa, eta Utero Rock IV dira interesgarrienak.

Aurreko eskemari jarraiki, oraingo CD honek ere CD-ROM pista bat du bideoklip, historia, diskografia eta beste hainbat informazio duelarik. Azken finean, E.H. zaleontzat ezinbeste diskoa nahiz eta 36 minutu eskas, aurreko diskoetan lez, nahiko ez suertatu.



dekorazioa

ALBERDI

696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

Alberdi

Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155

INMOBILIARIA

Amaia

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

ileapaindegia

I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 943 862083



Erribera kalea Tel. 943 861523



taberna
JUSTA

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

Euskal Jaia argazkitan



Sukaldarien lapikotik
marmitakoa bakarrik ez zen
atera, baita bertsoak eta
trikitixa ere.



- Arrainak eta haragiak
aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853

Z
Zumaia Hotela



Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64



Goiko plazako giroa aparta izan zen.
Halare, batzuk Erriberatik ezin atera...



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

ABUztuAK 23, 24, 25, 27 eta 28

OIKIAKO JAIK.

ABUztuAK 23

22.30etan DINASTIA ETXABE finalak.

ABUztuAK 24

18.00etan BOST KIROL FROGA

ABUztuAK 25

19.00 etan Kukubiltxo taldearen "EKIDAZU" txotxongiloa, E.Gurru txaga plazan.

ABUztuAK 28

19.30etan PORTLAND SAN ANTONIO - BALONMANO CANTABRIA eskubaloI partida.

ABUztuAK 28 - IRAILAK 8

IV. Zumaiko Kale **Pintura** Lehiaketako lanak, AlondegI Zaharrean.

IRAILAK 6-15

"ZUBIETA XXI", AlondegI Zaharrean

IRAILAK 14

23.00etan EUSKADI GAZTEKO DISKO FESTA.

IRAILAK 27, 28 eta 30

ARTADIKO JAIK.

Abuztuan egindako
fantasiatzko zinearen zikloko
kartelaren irudi bat.



haur jantziak

Amaiaiko plaza z/g

Tel. 943 860959

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4

tel: 943 860970

English School
Harvest

Ingeleseko klaseak adin guztietan

San Jose, 11 bis

Tel. 943 143334

ODONTOLÓGIA - PROTESIS DENTAL

CLINICA DENTAL ZUMAIK HORTZ KLINIKA

Plazuela de los Puertos - Bajo
Tel. (943) 86 14 74
20750 ZUMAILA (Gipuzkoa)

Gerente
Rafael Iraundegi Elgoibar



Tel. 943 143379

TXOMIN AGIRRE, z/g
TEL: 943 865369



Larunbat arratsaldetan irekita!!

Ardantzabide Altzariak

Sukaldeak
Egongelak
Era guztietako logelak
Mahaiak
Ateak
Leihoak
Horma armairuak
Tarimak
Era guztietako arotz lanak

Hego kalea, 4 (estazioa) 5. pabilioia
Tel./Faxa: **943 86 25 32**
TAILERRA: Santxo auzoa 40



Casa BASUSTA



CASA
BASUSTA

LORATEGIA

Ezkontzak, Bataioak, Jaunartzeak,
Lore-zentruak, Koroak,
Landare naturalak eta artifizialak,
Zeramika-lanak eta zumezko saskiak

Etxez etxeko zerbitzua

Santiago Auzoa, 18 TEL: 943 862611

